Ohiko ildoetatik at

Txalapartak argitara eraman du **Jose Carlos Fernandes** autore portugaldarraren komikia, 'Munduko Bandarik Txarrena'. Horretan, surrealismo kutsua duten istorio multzoak izango ditu irakurgai publikoak

UXUE RAZKIN

"Mundu txiki bat sortzen du (Fernandesek), inon ez dagoena, ezinezkoa, pertsonaia estoikoz betea eta, hala ere, gugandik hain urrun sumatzen ez duguna", azaltzen du Mikel Soto editoreak. TXALAPARTA

JOSE CARLOS FERNANDES (Loulé, 1964) portugaldarraren komikia iritsi da Euskal Herrira Txalaparta argitaletxearen eskutik. Joan den martxoan kaleratu zuten *Munduko Bandarik Txarrena*, Bego Montoriok itzulitakoa. Komikia autorearen lehenengo hiru liburukiz osatutako bilduma da. Guztira, sei liburukiek osatzen dute jatorrizkoa, baina berriki argitaratu dutena, Fernandesen lehenengo hiruak soilik hartzen ditu bere barne. Txalapartako kidea den Mikel Sotok azaltzen du: "Lehena, *Utopiaren kioskoa*, *Nabarra* aldizkarian argitaratzen hasi zen. Bego Montoriori falta ziren bi liburukiak itzultzeko proposamena luzatu genion: *Gauza hutsal eta garrantzi gabekoen museo nazionala* eta *Babelgo hondakinak* eta, guztiz lanpetuta egon arren, dedikazio handiz ekin zion hori egiteari".

Obra hau argitaratzeko arrazoiak aipatu ditu Txalapartako editoreak. Batetik, hasierako pausoa emanda zegoelako jada. Hau da, *Munduko bandarik txarrena* obraren lehen liburukia, *Nabarra* aldizkarian argitaratzen hasi zelako. Horren ondotik, Bego Montoriori komikiaren itzulpena proposatu zioten. Sotok dioenez, "atsegin handiz" onartu zuen, ezagutzen eta miresten baitzuen Fernandesen lana. *Nabarra* aldizkariaren itxieraren ostean, Sotok ez zuen hasitako prozesua eteterik nahi. "Kontua buruan jirabueltaka izan nuen luzez, ez nuelako berton egindako lana alferrik galtzerik nahi", argitzen du. Horretaz gain, Astiberri argitaletxeko Laureano Dominguezekin afera aipatu eta haiek gaztelerara itzultzekotan zeudela jakin zuenean, indarrak batzeari iritzi zioten: "Baterako edizio bat antolatzeari ekin genion, lana bideragarriagoa izango zelakoan".

Komikiari dagokionez, jende aurrean inoiz jo ez duen jazz musika banda bat topatuko du irakurleak obra honen hasieran. Entseguak egiten dituzten arren, ez dute inoiz zuzenean jo. Istorio honek komikiari hasiera ematen badio ere, ez da izango publikoak aurkituko duen ildo bakarra. Bego Montorioren esanetan, kontakizun askok osatzen baitute *Munduko bandarik txarrena*: "Ez da istorio luze bat, baizik eta bi orrialdeko istoriotxoak. Mundu oso bat aurkituko du publikoak, mundu berezia". Berak azaltzen duenez, komikian zehar bestelako pertsonaiak eta haien bizitzak, frustrazioak… ere topatuko ditu irakurleak.

Obra honen ezaugarriei jarraiki, ezohikotasuna azpimarratzen du itzultzaileak. Bada, hori da komiki honek daukan berezitasun nagusietako bat: "Sortu dituen pertsonaiak eta gertatzen zaizkien gauzak non kokatu dituen; hots, existitzen ez den mundu batean, mundu irreal batean". Irakurlea "erabat deskolokatu" nahi duela dio: "Ez dira ohiko pertsonaiak ezta ohiko formatu bera ere". Estetikari erreparatuz gero, zuri-beltzaren eta kolorearen arteko nahasketa nabarmentzen da: "Egun, zuri-beltza ala kolorea erabiltzen da, baina nahaseta hau da pixka bat ohikotik ateratzeko". Komikiaren edukia eta forma batak bestea baldintzatzen duela irizten du. Giro tristea nagusi da komikian eta horretan ere ezohikotasuna nabaritzen du: "Absurdoa da, eta nik uste dut komikigintzan ez dela modu honetara egin. Liburu honek ez dizu barre algara aterako, baina bai irribarretxoak".

Soto bat dator obraren interpretazioarekin: "Mundu txiki bat sortzen du, inon ez dagoena, ezinezkoa, surrealista samarra, pertsonaia estoikoz betea eta, hala ere, gugandik hain urrun sumatzen ez duguna". Halaber, beste ezaugarri bat aipatzen du tartean: "Hain polimorfoa izanik, irakurle batzuk umore absurdoarekin maiteminduko dira, beste batzuk, ordea, erreferentzia metaliterarioekin, edota pertsonaia guztiak lotzen dituzten hari bitxiekin... Eta guztiak Jose Carlos Fernandesen unibertso bitxi honekin".

Fernandesek sortutako mundu berezi horren zergatia azaldu du Montoriok: "Horren atzean, nik uste dut gizartearen isla eta kritika egiten duela, surrealismo edo absurdoaren puntu kafkiano batekin". Edozeinek goza dezakeen komikia dela dio, ohiko ildoetatik ateratzen den arren. Irakurleen artean, komikiak harrera ona izan dezakeela pentsatzen du: "Komikia bitxia da, literatura bezala". Gainontzeko liburukiak argitaratzeari dagokionez, zera dio: "Honek zer bide egiten duen ikusi behar dugu lehen. Bidea ondo egiten badu, posiblea liteke".

ITZULPENAREN PROZESUA Montorioren hitzetan, itzultzeko prozesua nahiko berezia izan da, ez baita prozesu jarraitu bat izan. Aipatu bezala, lehendabiziko atala *Nabarra* aldizkarirako gauzatu zuen eta ondoren, hurrengo bi liburukiak itzultzeko proposamena heldu zitzaion. Itzulpen orok "lan handia" ematen duela dio, "ez baitago itzulpen errazik", baina gaineratzen du: "Kasu honetan, bere mundu horretan murgiltzea eta bide hori hartzea… Lan handia izan da, baina gustura egin dut". Komiki hau itzultzeak poz handia eman dio gainera: "Zuk ikusten baduzu obra on bat, kasu honetan komiki bat, eta badakizu zure ingurukoek ezin dutela disfrutatu beste hizkuntza batean dagoelako… Hori euskaraz ematea, izugarria da". Bukatzen du esanez: "Bere obran murgiltzeko aukera eman dit. Lehen aldiz irakurri nueneko –jakin gabe itzuliko nuela–, atsegintasun hori handitu egin zait. Tartean ere lana egon da, jakina".

KOMIKIEN LORALDIA OTE? Bestalde, komikiek literaturaren munduan duten lekua txikia izaten jarraitzen du. Bizi izan duen eta egun bizi duen egoerari helduz, euskarazko ekoizpen urriaz mintzo da Soto: "Euskaraz komikiak sekula ez du bide handirik egin, eta euskarazko ekoizpena oraindik memoria gehiegi estutu gabe zerrendatu daiteke, zoritxarrez". Hala eta guztiz ere, gaur gaurkoz komikien munduak nolabaiteko loraldia bizi duela dio. Egun, liburu denda askotan komikientzako atalak sortu dituzte, nobela grafikoa literatura arloan garrantzia hartzen ari denaren seinale. "Beharbada ez dago dena galduta eta, komikiek Frantzian edo Japonian daukaten lekua izatera iritsi gabe, aurkituko dute txokotxo bat gurean".